

ORGANO

MUSIKA

NAFARROAN

2016ko irailaren
16tik azaroaren 4ra

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra



cultura
navarra.es

 Cultura Gobierno de Navarra

 @cultura_na

www.culturana Navarra.es

Sarrera doan, edukiera bete arte

ORGANO MUSIKA NAFARROAN

2016ko irailaren 16tik azaroaren 4ra

topaketa

GUK JOTZEN DUGU, GUK PROPOSATZEN DUGU. "ORGUE STU- DIO" PROIEKTUA

B. Mernier. T. Hernández.
Pablo Sarasate Musika
Kontserbatorio Profesio-
nala, Iruña
Irailaren 16a. 19:30ean

kontzertua

ARTE ARTEAN

B. Mernier. T. Hernández.
Leireko Monasterioa
Irailaren 17a. 19:45ean

kontzertua

KORUTIK FORORA

J. L. Echechipía.
Iruñeko Katedrala
Irailaren 21a. 18:00etan

kontzertua

AURKEZPENAK

I. Larumbe.
Mañeruko San Pedro eliza
Irailaren 24a. 18:30ean

topaketa

EUNATE XXI

J. Goia-Arribé. A. B. García.
Iruñeko San Domingo eliza
Gehienez ere 50 lagun
Urriaren 1a. 20:00etan

kontzertua

EUNATE XXI

J. Goia-Arribé. A. B. García.
Orreagako Kolegiata.
Urriaren 2a. 19:00etan

kontzertua

LEIREKO ORKESTRA SINFONIKOA

A. Barba.
Leireko Monasterioa
Urriaren 9a. 12:45ean

kontzertua

BAT-ETORTZE ZORIO- NEKOAK

R. del Toro.
Salvatore eliza (Arrotxa-
pea, Iruña)
Urriaren 14a. 20:00etan

kontzertua

EZAGUTU IZAN DITU- DAN MUSIKARIAK

M. Torrent.
Iruñeko San Nikolas eliza
Urriaren 22a. 18:00etan

topaketa

HAIZEA ETA URA

J. L. Echechipía. P. Cepeda.
Lesakako San Martin eliza
Urriak 29. 18:00-etan

kontzertua

POSITIBOA ITZULI DA

J. Gonzalo. J. L. Echechipía.
F. Desmottes.
Cascanteko Erromeroaren
Amaren Basilika
Azaroaren 4a. 19:30ean.

ikastetxeendako bisita

POSITIBOA ITZULI DA

J. Gonzalo.
Cascanteko Erromeroaren
Amaren Basilika.
Azaroaren 4a.
Eskola ordutegia.

topaketa
**GUK JOTZEN DUGU,
GUK PROPOSATZEN
DUGU. "ORGUE
STUDIO" PROIEKTUA**

Pablo Sarasate Musika
Kontserbatorio Profesionala,
Iruña.

Irailaren 16a. 19:30ean.



Bruselako Goi Mailako Musika eta Pedagogia Institutuko proiektua. 2002an hasi zen eta gaur egun jarraitu egiten du. Gaur eguneko mundu artistikoaren eta organoaren artean dagoen aldea gainditzeko sortu da, musika tresna honen ikerketari perspektiba berriak ekarriz. Emaizta da ikasle mota sortzaile, hausnartzaile eta ekimenduna, gai dena proiektu artistikoak garatzeko.

Hizlariak: **B. Mernier** (Organista eta konpositorea. Belgikako Namur hiriko Goi Mailako Musika eta Pedagogia Institutuko organo irakaslea). **T. Hernández** (Musikaria, ikusizko artista).

topaketa
EUNATE XXI

Iruñeko San Domingo eliza.
Sarrera erkidegoaren atetik.
Gehienez ere 50 lagun.

Urriaren 1a. 20:00etan.



Eunate XXI, "making-of".

Hizlariak: **J. Goia-Arribé** (Saxofonista, konpositorea eta moldatzailea). **A. B. García** (Organista).

topaketa **HAIZEA ETA URA**

Lesakako San Martin eliza.
Urriak 29. 18:00etan.



Bidasoko eskualdeak organo ondare aberats eta iradokitzailea eskaintzen du. Horretaz jakitun, Berako udala, Cederna-Garalur agentziarekin batera, ondare honen eta bere giza-testuinguruaz dokumentala "Bidasoko organoen ibilbide" bat sortu dutelarik.

Hizlariak: **J. L. Echechipía** (dokumentalaren produktore artistikoa), **P. Cepeda** ("Bizkaiko Soinuen" emanaldiaren Zuzendari Artistikoa)

ikastetxeendako bisita **POSITIBOA ITZULI DA**

Cascanteko Erromeroaren
Amaren Basilika.

Azaroaren 4a. Eskola ordutegia.

Organo "eramangarriak" eta haien musika, saio baten bidez egituratua, organo adibide bat aurkezteko: Cascanteko Erromeroaren Basilikako organoaren erreprodukzioa, hain zuzen ere.

Hizlaria: **J. Gonzalo** (organista eta Salamankako Goi Mailako Kontserbatorioko eta Zaragozako Kontserbatorio profesionaleko irakaslea).



kontzertua

ARTE ARTEAN

Leireko Monasterioa.
Irailaren 17a. 19,45ean.

Esperimentazio saioa, ikusizko eta entzunezko arteen arteko elkarreraginaren gainean. Ikusizko obra bat eskainiko da (zuzenean proiektatuta) une bakoitzean organistak jotzen duen musikarekin lotura zuzena duelarik.

Interpreteak: **B. Mernier** (Organista eta konpositorea. Belgikako Namur hiriko Goi Mailako Musika eta Pedagogia Institutuko organo irakaslea). **T. Hernández** (Musikaria, ikusizko artista).



EGITARRAUA

O. MESSIAEN (1908-1992)
Les Mains de l'Abîme (1951ko Livre d'Orgue liburukoa)

B. MERNIER (1964)
Improvisación

J.S. BACH (1685-1750)
Pièce d'Orgue in G, BWV 572
Très vitement / Gravement / Lentement

N. DE GRIGNY (1672-1703) - **B. MERNIER**
[estreinaldia Espainian]
Pange lingua (1701-2013)
Prélude (BM) / Pange lingua [Plein-jeu] (NdG) / Nobis datus (BM) / In supremæ nocte coena [Fugue à 5] (NdG) / Verbum caro (BM) / Tantum ergo [Récit] (NdG) / Genitori Genitoque / Amen (BM)

J. ALAIN (1911-1940)
Choral dorien, AWV 75 (1935)

C. M. WIDOR (1844-1937)
Allegro de la VIème Symphonie, op. 42 (1878)



Benoît Mernier

Belgikan sortu zen, 1964an. Organoa ikasi zuen Firmin Decerf, Jean Ferrard, Bernard Focroulle eta Jean Boyerrek. Eskuarki bakarlarik kontzertuak ematen ditu Europako hainbat herrialdetan, Japonian, Mexikon eta Kanadan. Bere diskoetako batek Grand Prix de l'Académie du Disque Charles Cros saria eskuratu zuen. Musikagilea ere bada. Bere lanak Europako eta Ameriketako Estatu Batuetako talde eta orkestra ugari jo izan dituzte. Nazioarteko sariak eskuratu ditu, eta bere lanak grabazio diskografikoetan bildu dira. Sablongo Notre-Dame elizako organista da (Brusela), eta Belgikako Beaux-Arts de l'Académie Royaleko eskolako kidea. Organo eta inprobisazioko irakaslea da Namurko Institut Supérieur de Musique et de Pédagogie (IMEP) institutuan. «Orgue Estudio» egitura pedagogiko berriaren buru izan da. Hain zuzen, egitura pedagogiko horren asmoa da egungo errealitateak eta organoaren etorkizun profesionaleko erronkak lotzea.

Argibide gehiagotarako:
http://www.compositeurs.be/fr/compositeurs/benoit_mernier/28/teurs/benoit_mernier/28/

Teresa Hernández

Burgosko, Salamancako, Iruñeko eta Bruselako kontserbatorioetan eta Errioxako Unibertsitatean ikasi du, eta haietan Biolineko eta Organoko Erdi Mailako tituluak, Biolinaren Pedagogiako Goi Mailako Titulua, Musikaren Historiako eta Zientzietako Lizentzia eta Biolin Barrokoko Bachelor of Arts eskuratu ditu. Organoko goi mailako gradua hasi zuen Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioan, Raúl del Tororekin, eta egun Benoît Mernier eta Cindy Castilloren organo eta inprobisazioko eskolan ari da jarraitzen (OrgueStudio, IMEP, Belgika). Arte plastikorako interesak Arte Batxilergoa egitera eraman du eta bai Arte Ederretako ikasketak eta Grabatze eta Estantpatze Tekniketakoak hastera ere, Salamancako Unibertsitatean eta Iruñeko Arte Eskolan. Burgosko Orkestra Sinfonikoko kidea da, organista Bruselako Paroisse Notre Dame Immaculée komunitate gaztelaniadunean, Blackbinder sistemako (musika edizio digitala, NewMusicNow enpresa) kolaboratzailea eta aholkulari musikologikoa, eta Bruselako SIC elkartearen (Sauvegarde des Instruments à Clavier) liburutegiko laguntzailea.

kontzertua

KORUTIK FORORA

Iruñeko Katedrala.

Irailaren 21a. 18:00etan.

Organo musika kalera aterako da. Or-
dubetez, Curia eta Navarrería karriken
goialdean pasieran dabiltzanak usteka-
bean harrapatuko ditu Iruñeko Katedra-
leko organo sinfonikoaren musikak.

Interpretea: **J. L. Echechipía** (Leireko mo-
nasterioko organista titularra).

EGITARAUA

Bi munduren eta bi musika-espazioren
arteko topaketa

E. ELGAR (1857-1934)

Organorako transkripzioa: P. Gouin
Nimrod (Enigma Variations)

G. HOLST (1874-1934)

Organorako transkripzioa: P. Sykes
The planets (hautaketa)
Mars / Venus / Jupiter

C. DEBUSSY (1862-1918)

Organorako transkripzioa: F. Becker
Arabesque N° 1

L. VIERNE (1870-1937)

Intermezzo (Pieces de fantaisie, suite I)

J. S. BACH (1685-1750)

Organorako transkripzioa: P. Gouin
"Schafe können sicher weiden" - Cantata
BWV 208

G. F. HAENDEL (1685-1756)

Organorako transkripzioa: T. Dubois
Halleluia (Messiah)

M. DURUFLÉ (1902-1986)

Suite, Op. 5
Prélude / Sicilienne / Toccata



José Luis Echechipía

José Luis Echechipía Espainia, Frantzia, Portugal, Txekiar Errepublika, Italia eta Filipinetako jaialdietan aritu izan da, besteak beste. Irakaskuntzaren alorrean, eta bere eskualdeko organo eta musika ondareari zabalkundea ematekoan ere lan egiten du, irrati programen edo zabalkunde eta heziketa proiektuen bidez.

Irratirako eta telebistarako grabazioak ditu, eta bai zenbait lan diskografiko ere, bai bakarka, bai eta zenbait musika talderekin ere. Egun, Leireko Monasterioko oholtza organoko titularrak da, mota guztietako aparteko aukeren bidez, musika tresna honetarako interesa zabaltzea xede duen proiektu baten barnean.

Argibide gehiagotarako: www.organonavarra.com

kontzertua

AURKEZPE- NAK

Mañeruko San Pedro eliza.
Irailaren 24a. 18:30ean.

Nafarroako Musikako Goi Mailako Kontserbatorioko ikasleek beren burua jendaurrean aurkezteko parada izanen dute (organo zikloan musika tresna honetako profesional gisa).

Interpretea: **I. Larumbe** (Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko ikaslea).

EGITARAUA

J. LIDÓN (1748-1827)
Fuga "Ave Maris Stella" himnoaren gainean
Sonata de 1º tono

M. DE GAMARRA (1723-1791)
Sonata en La menor
Sonata en Do Mayor

J. S. BACH (1685-1750)
Teklaturako kontzertua, fa maiorrekoa,
BWV 978

J. BRAHMS (1833-1897)
Schmücke dich, o liebe Seele
O wie selig seid ihr doch, ihr Frommen
O Gott, du frommer Gott
Es ist ein' Ros' entsprungen

T. DUBOIS (1837-1924)
Petite Pastorale Champenoise (Deux petites pièces)
Prélude (Deux petites pièces)
Prière (Sept pièces)
Postlude-Cantique (Sept pièces)



Iosu Larumbe Iturbide

Martzillan sortua, organo ikasketak Nafarroako Musikako Goi Mailako Kontserbatorioan egin zituen, Raúl del Toro irakaslearekin. Era berean, ikastetxe berean, Musika Hizkuntzaren eta Hezkuntzaren Pedagogiako titulua lortu zuen. Prestakuntzaren barruan, hobetzeko ikastaroak hartu ditu, besteak beste, Jacques Ogg, Els Biesemans, Fabio Ciofini, Benoît Mernier, Michel Bouvard, Géraud Guillemot eta Daniel Rothekin.

Lekunberriko Aralar musika eskolako irakaslea da eta, batez ere, piano eta musika hizkuntzari buruzko eskolak ematen ditu. 2000. urteaz geroztik lan jarraikia egiten du Atarrabiako San Andres abesbatzako pianista eta organista laguntzaile, eta, aldi berean, erregulartasunez laguntzen die komunitateko hainbat abesbatza talderi. Horrez gain, jarduera horiek zenbait parrokia elizatako organista liturgikoaren zereginekin txandaten ditu. Musikari laguntzaile edo bakarlari moduan, Nafarroako hainbat herritan egin ditu errezitaldiak.

kontzertua

EUNATE XXI

Orreagako Kolegiata.
Urriaren 2a. 19:00etan.

Organo eta saxo duoa. Pirinioetako men-
debaldeko herri doinu eta adierazpenak
eskainiko dituzte, ahozko transmisio bi-
dez iraun dutenez, kutsu magiko eta mis-
terioitsu batez inguraturik datozenak. Kla-
be tonalean, modalean eta atonalean
emanen dira, moldaketa, fraseatze eta
harmonia berriekin eta inprobisaziorako
espazioarekin.

Interpreteak: **J. Goia-Aribe** (Saxofonista,
konpositorea eta moldatzailea). **A. B.
García** (Donostiako Koruko Andre Maria-
ren basilikako organista).

EGITARAUA

J. GOIA-ARIBE
Auresku gitano

HERRIKOIA / J. GOIA-ARIBE
Danza de las ballestas

A. DONOSTIA (1886-1956) /
J. GOIA-ARIBE
Érase una vez

J. GOIA-ARIBE
Sagar Dantza

J. GOIA-ARIBE
Saioa
Eunate
Me Miserum

F. GORRITI (1886-1965) /
J. GOIA-ARIBE
Jesusen Ama

J. GOIA-ARIBE
Lamento Foral
Solsticio de invierno
Donostiako Hiru Damatxo suitea
"La Pija" / "La Gitana" / "La Sofisticada"

TRADIZIONALA / J. GOIA-ARIBE
Agnus Dei

HERRIKOIA / J. GOIA-ARIBE
Agur Jaunak



Josetxo Goia-Arribé

Nerabezaroan Euskadiko eta Nafarroako folklore musikan esperientzia zabala maiztu eta gero, solfeo, harmonia, piano eta saxofoi ikasketak hasi zituen Iruñean eta Donostian, eta goi mailako titulua eta karrera amaierako saria eskuratu zuen saxofoi-jotzaile gisa. Jazzaren barnean eta kanpoan hainbat esperientzia izan ondotik, lau urte eman zituen Parisko CIM zentroan (Centre d'Informations Musicals), musikari desberdinekin elkarlanean eta askotariko esperientzietan parte hartzen. Parisen egindako urteek balio izan diote jaioterriko musika beste ikuspegi batetik ikusi eta balioesteko; bere ibilbidean nabarmendu beharreko erreferentzia esparrua izan duen musika, hain zuzen. Zortzi disko ditu kaleratuta. Espainiako eta Frantziako musikagintzako musikari onenetako askorekin jo eta grabatu du. Sormen jarduera eta jarduneko musikariarena musikaren arloko irakaskuntzarekin konbinatzen du, Musikene Euskadiko goi mailako eskolan ematen baititu eskolak 2002az geroztik.



Ana Belén García

Andoainen jaio zen. Pianoko eta clavecin-etako goi mailako ikasketak Donostiako Kontserbatorioan osatu zituen nahiz organoko erdiko maila, E. Elizondorekin. Azkeneko hauek, Musikenen bukatu zituen, E. Landartekin. Hemen ere, hainbat irakaslekin aritu zen, esate baterako; Loïc Malliérekin, inprobizazioa landuz. Enrique Lartundo Fundazioko bekaduna izan da behin baino gehiagotan, piano eta organo ikasketak sendotu dituelarik. Pau-ko L'Ecole Nationale de Musique-n 'Mention Tres Bien a l'Unanimité' eskuratu zuen, organoaren espezialitatean. Bakarleri eta laguntzaile gisa parte hartu du Espainiako eta Frantziako hainbat jaialditan. Era berean, piano eta organoko klaseak ematen ditu eta repertorista gisa lanean aritzen da. Gaur egunean, Donostiako Santa Maria Basilikako organista titularra da.

kontzertua

LEIREKO ORKESTRA SINFONIKOA

Leireko Monasterioa.

Urriaren 9a. 12:45ean.

A. Dvorák "Mundu Berriko Sinfonia",
organo sinfonikora eramana.

Interpretea: **A. Barba** (Organista-
kontzertista. Valentziako Goi Mailako Mu-
sika Kontserbatorioko irakaslea).

EGITARAUA

A. DVORÁK (1841-1904)

Transkripzioa: Z. Szathmáry

9. zenbakiko sinfonia, *mi minorrekoa*,
Op. 95 (1893), "Sinfonia del Nuevo Mun-
do" (Novosvetská)

Adagio - Allegro molto / Largo / Scherzo:

*Molto vivace - Poco sostenuto / Allegro
con fuoco*



Arturo Barba Sevillano

Organista-kontzertista, Valentziako Musikako Goi Mailako Kontserbatorioko irakaslea (CSMV), Valentziako Jesusen Lagundiko organoaren titularra (G. Blancafort IV/72), Morellako Musikako Nazioarteko Jaialdiko zuzendari artistikoa (1719ko Turull organoa; II/34) eta Valentziako Musikaren Palau jauregiko Organo Zikloko koordinatzailea (Grenzing IV/45).

CSMVko titulua (organoa - aparteko saria, pianoa eta ganberako musika) eta EHUkoa (arkitektura eta doktoretza) ditu, eta Valentziako Orkestrako organista nagusia da eta bai Palau de Les Arts jauregiko Opera Orkestrakoa ere. Bi horiekin bakarlari aritu da, besteak beste, Z. Mehta, F. Biondi, M. Plasson, C. Halffter, J. Pons, E. García Asensio, J. Belohlávek eta G. Pehlivanian zuzendariekin. RNE-Radio Clásica irrati kateko grabatu du eta kontzertu jarduera bizia du errezitaldiak eginez Holandan, Frantzia, Portugalen, Italian eta Espainiako geografia ia osoan.

kontzertua

BAT-ETORTZE ZORIONE- KOAK

Salvatore eliza (Arrotxapea, Iruña).

Urriaren 14a. 20:00etan.

1916an Arrotxapeko eliza berria be-
deinkatu zen. Estilo neogotikoan eraiki
zen. 100 urte beranduago bertako korura
estetika eta jatorri ingeleseko organo bat
iritsi zen. Organo hori guztiz bat dator
eraikinarekin eta koherentzia estetiko
handiko multzo bat osatzen dute bien
artean. Zinez, bat-etortze zorionsua da.

Interpretea: **R. del Toro** (Salvatore
parrokiako organista titularra eta
Nafarroako Goi Mailako Musika
Kontserbatorioko irakaslea).

EGITARAUA

Organo ingelesa, bi menderen artean

I. EREDU KONTINENTALA

J. RHEINBERGER (1839-1901)

Monologues op. 162 (1890)

*n° 2 Poco agitato / n° 3 Andante
tranquillo / n° 5 Andante amabile*

II. ERREPERTORIO BERRI BAT

C. V. STANFORD (1852-1924)

Six preludes op. 88 (1903)

*n° 3 En forma de toccata. Allegro / n° 4
Sobre un himno de Pascua. Allegro
vivace*

*Six short preludes and postludes op. 101
(1907)*

*n° 1 Allegretto / n° 2 Allegro non troppo
e pesante / n° 3 Allegro non troppo*

*Six short preludes and postludes op. 105
(1908)*

*n° 2 Sobre un tema de Orlando Gibbons /
n° 3 Lento / n° 6 Allegro*

III ESTILO PROPIORANTZ

F. BRIDGE (1879-1941)

Three pieces for organ H63 (1905)

Andante moderato

Six organ pieces (1914)

*n° 1 Allegretto grazioso / n° 3 Allegro
marziale e ben marcato / n° 5 Andantino /
n° 6 Allegro ben Moderato*

Three pieces for organ H190 (1935)

Allegretto tranquillo e meditativo

R. V. WILLIAMS (1872-1958)

Toccata "St. David's Day" (1956)



Raúl del Toro Sola

Organo ikasketak Iruñeko Pablo Sarasate musikako goi mailako kontserbatorioan egin zituen, eta gero Bartzelonan hobetu zituen Montserrat Torrentekin eta bai Amsterdamen ere Jacques van Oortmerssenekin. Kontzertuak eman izan ditu Espainia osoan, eta bai Europa, Asia eta Ameriketako hainbat tokitan ere.

Iruñeko Pablo Sarasate musikako kontserbatorio profesionalen, organoko irakasle titularra da, eta egun tresna horretako katedra ematen du Nafarroako Musikako Goi Mailako Kontserbatorioan. Espainiako RNE irrati publikoko Radio Clásica katean "El órgano" asteroko saioko zuzendaria eta aurkezlea izan da. Iruñeko Salvatore elizako John Hele & Co. (1878) organoko organista da, eta Schola Gregoriana Gaudeamus taldeko zuzendaria.

kontzertua

EZAGUTU IZAN DITUDAN MUSIKARIAK

Iruñeko San Nikolas eliza.

Urriaren 22a. 18:00etan.

Montserrat Torrent, XX. mendeko espainiar organista garrantzitsu bat da. Emakumeendako zaila zen mundu batean bidea egin zuen. Mundu guztiko jaialdietan jo du eta musikari garrantzitsuekin batera aritu da. Proposamena zera da, berak pertsonalki ezagutu zituen autore horien obrekin osaturiko programa bat.

Interpretea: **M. Torrent** (Organista).

EGITARAUA

J. NIN-CULMELL (1908-2004)
Symphonie des Mystères (selec.)
Le lever du soleil / Offrande / Le vent

C. TALTABULL (1888-1964)
Nadala

M. CASTILLO (1930-2005)
Fantasia para un libro de órgano

L. BENEJAM (1914-1968)
Prelude for a wedding

P. A. MASSANA (1890-1966)
Pastoral

M. MANZANO (1934)
Preludio y cuatro Glosas
A dos tipos / Pastorela, en modo mixto /
Registro bajo, en ritmo de amalgama
simple / Registro bajo, en ritmo de doble
amalgama

X. MONTSALVATGE (1912-2002)
Aureola

F. MOMPOU (1893-1987)
Pastoral (Cançó i dansa n° 15)

J. SOLER (1935)
Mariam Matrem

J. GURIDI (1886-1961)
Toccata



Montserrat Torrent

1926an jaio zen, Bartzelonan. Laster hasi zuen pianoko musika prestakuntza, Ángela Serra amaren zuzendaritzapean (Enrique Granadosen ikaslea izandakoa zen). Ikasketak Marshall eskolan hasi zituen eta Bartzelonako Musikako Goi Mailako Udal Kontserbatorioan amaitu zituen. Ondoren, Parisen ikasten jarraitu zuen (Nöelie Pierrontekin), Frantziako Institutuaren beka bati esker, eta bai Sienan ere (Ferdinando Germani eta Helmuth Rillingekin), Juan March fundazioaren beka baten laguntzarekin.

Bartzelonako Udal Kontserbatorioko organoaren arloko katedradun izendatu zuten, eta irakaskuntzako eta kontzertuetako jarduera hasi zuen, Europa osoan, Ipar Amerikan eta Hego Amerikan kontzertu ugari eginez, interes berezia jarrita organoa herri musikako tresna moduan berreskuratzean. Bartzelonako Musikako Goi Mailako Udal Kontserbatorioan irakasle aritu zen, organoaren arloko katedradun postuan, erretiroa hartu zuen arte. Montserrat Torrenten lan handia hainbat sarirekin aitortu da.

ikastetxeendako
bisita

POSITIBOA ITZULI DA

Cascanteko Erromeroaren
Amaren Basilika.

Azaroaren 4a. 19:30ean.

Cascanteko Erromeroaren Basilikako organo positiboaren zaharberritzea aspaldi desiraturiko irrika izan da. Nafarroako organorik zaharrena da, ezaugarri horretako musika tresna bakarra. Kontzertuan musika tresna honen kopia bat aurkeztuko da, Desmottes anaiei organo lantegian egindakoa.

Interpreteak: **J. Gonzalo** (organista eta Salamankako Goi Mailako Kontserbatorioko eta Zaragozako Kontserbatorio profesionaleko irakaslea).

J. L. Echechipia (Leireko monasterioko organista titularra).

Organo egilea: **F. Desmottes**.

EGITARAUA

ERROMEROKO AMA BIRJINAREN OME- NEZKO DANTZAK

Leku askotan bilduak eta bilduman jarriak anaia Antoniok, ama birjina honek Cascanten duen basilika eraiki eta handik urte gutxitara

Pavana
Tamborilero
Españoleta
Unas folias
Diferencias sobre gayta
Cuatro danzas extranjeras
Dos pasacalles de primer tono
Alonch
Xacara
Otras folías (frantsesak)
Vacas
Bayle del Gran Duque
Herri dantzen motak:

Tono indefinible, el Ra-ta-ta, otro género de Canarias, Ruede la bola, Al prado de San Jerónimo eta Los imposibles (frantsesa)

A. A. MARTÍN Y COLLEK bildutako lanak (ca. 1680-1734), 1706 eta 1709 artean

AGUR ILUSTRATU ATSEGINA GURE AMA BIRJINARI (espineta tartean)

A. A. SOLER (1729-1783)

*I. kontzertua teklako bi tresnatarako
Andantea eta minueta*



Jesús Gonzalo López

Jesús Gonzalo Lópezek, berrogeita hamar urteak betetzeko bidean, emanaldi bakoitzean gizakiarengan duen sinesmenaren balioa handitzen du: berdin dio antzinate klasikotik, humanismotik edo ilustraziotik, baina hor beti solfeoarekin arrazoibide eta aldarri moduan. Hiru hamarkada ziba batek baino bira gehiago ematen organorako Espainiako antzinako musikari, haren irakas-kuntzari, iturriei eta liburuei, tresnei, zabalkundeari eta jendeari..., unibertsoari, lotutako zereginetan. Badirudi denbora horrek guztiak gaitzen duela hurbildu eta begiztatu ahal izateko halako ondare bereziari buruzko ikuspegi zuzen eta zehatz bat: noiz zalapartatsua, noiz isila, orain elkorra, orain lore baratzea, mistiko eta mundutar artean, orduan gogaikarria eta bat-batean tentagarria, lehenbizi erogarria eta ondoren anestesikoa...

Den moduan dela, edonola ere, egiatan jada ez du zalantzarik pentsatzean jatorrian musika gizakiarengandik gizakiarentzat sortzen den mugimendua dela: horrekin gelditzen naiz oraingoz eta uste dut abiapuntu ona dela etorkizunerako...

Hortik sortzen da, guregandik zuentzat, Erromeroko Ama Birjinaren omenez aukeratutako antzinako dantzen musika bankete gozo eta salomoniko hau eskaini ahal izatea, Cascanteko Basilika Santuan hainbeste urtean eta Parisko jotzaile on baten eta antolatzaile atseginen konpainian, tokikoak Elkartean eta haraindikoak Redinen eta beste batzuetan, entzun zen organoaren oroitzapena jotzen: gozatu bakean tarte jostagarri baketsu honetaz (curriculumaren gainerako alderdia, arrunta, kontatuko dut zuzenean, interesekoa bada).

